

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia Iragarkiak

NEKAZARITZA SAILA

MENDI ZERBITZUA

Jendaurrean jartzea Aiarako udalerrian dagoen “San Pedro eta Altamira” izeneko mendi publikoaren (Olabezarko herriarenak) mugatzearen eta mugarritzearen espedientea, eta dagokion erreklamazio aldia abian jartzea, Arabako Lurralde Historikoko mendien Foru Arauan eta Mendien Arautegian ezarritakoaren arabera

Aiarako udalerrian dagoen “San Pedro eta Altamira” izeneko mendi publikoaren neurketa lanak eta behin-behineko mugarritzea amaituta, eranskinean agertzen diren mugen arabera, eta martxoaren 26ko 11/2007 Foru Arauak, mendienak, eta otsailaren 22ko 485/1962 Dekretuak onetsitako Mendien Arautegiak 120. eta 121. artikuluetan aurreikusitako eran, jakinarazten da ikusgai jarriko dela mugatzearen eta mugarritzearen espedientea Olabezarko Administrazio Batzarraren bulegoetan (Mugaburugotxi auzoa 29, 01479 Olabazar), interesa duen orok aztertu ahal izan dezan, iragarki hau argitaratu eta hurrengo hamabost egun balioduneko epean.

Era berean, iragarki hau argitaratu ondorengo hogeita hamar egunetan, onartu egingo dira zuzenbidearen arabekoak diren erreklamazioak; Arabako Foru Aldundiaren Mendi Zerbitzuari zuzendu behar zaizkio, eta Arabako Foru Aldundiaren Erregistro Orokorrean aurkez daitezke (Probintzia plaza 5, 01001 Gasteiz) edo Aiarako udaletxean.

Mugatze lanen kontra erreklamazioa aurkezteko, beharrezkoa da mugarriztatze lanetan bertan egon izana norbera edo norberak izendatutako ordezkari bat.

Jabetzari buruzko erreklamazioei dagokienez, ohartarazten da erreklamazioan berariaz aipatu behar dela administrazio bidea amaitzeko asmoz aurkezten direla, alde zuzeneko izapide gisa, gero arlo zibileko epaitegietara jotzeko.

Gasteiz, 2018ko azaroaren 21

Nekazaritza zuzendaria

MARÍA ASUNCIÓN QUINTANA URIARTE

ERANSKINA

Olabezarko herriaren “San Pedro eta Altamira” izeneko mendi publikoaren mugak

Iparraldean: Murga eta Amurrioko jabetza pribatuak.

Ekialdean: Amurrioko herriaren mendi publikoa eta Amurrio eta Olabezarko jabetza pribatuak.

Hegoaldean: Olabezarko herriko jabetza pribatuak.

Mendebaldean: Olabazar eta Murgako jabetza pribatuak.